

RKSV Hernani HOLLANDAN

AGURTZANE RAMA URIA

1 997. urtean Holanda aldera abiatu nintzen Leonardo izeneko proiektuaren barnean Arnhem hiriko enpresa batean lan egitera. Han nengoelarik San Joanetan argitaraturiko "Hernani 1997" aldizkaria jaso nuen.

Aipatutako ale horretan, Jose Ramon Etxaniz Gesalagak idatzitako "Una pequeña visión de internet" artikulua irakurri nuen. Harrituta topatu nuen Hernani izeneko futbol talde bat nonbait bazegoela Holandan. Herrialde hartan zenbait denbora eman beharko nuelarik interesgarria iruditu zitzaidan talde honetako arduradunekin harremanetan jartzea. Nahiko lan izan nuen arren, azkenean interneten bidez eta lankide futbolzale batzuei esker lortu nuen Hernani futbol talde holandarra Hernen izeneko herriska batean kokatzea.

Hernen 1.000 biztanle inguru duen herriska bat da eta, beste zenbait herri txikirekin batera, Wijchen udalerrira sartzen dute, 35.000 biztanlekoa. Hernen Waal eta Maas ibaien artean dagoen ibarrean kokaturik dago bere lurra belardi eta fruitu arbolez beteta daudelarik. Nijmegen izeneko hiritik (Nimega da bere izena gazteleraz) 15 bat kilometrora dago eta Arnhem-etik 35 km-ra.

Hernen horren herri txikia eta lasaia izanik ere (taberna bakarra dago bertan, "Cafe de Toekomst", Hernani futbol taldearen sari ugari bere bitrintan gordeta dituen), turista ugari joan ohi da bertara, batez ere bertan kokaturik dagoen gaztelua ikustearren. Berez Erdi Arotik hoberen kontserbaturik dagoen gazteluetariko bat da



HERNEKO JAUREGIA.

Hernen-eko gaztelu hau. Hernen-eko Jaunari buruzko lehen aipamenak 1247 urtekoak dira eta Jauregiari buruzko lehen hitzak 1369an idatzi omen ziren.

Jauregi honetan eta inguruetan dauden beste zenbaitetan Erdi Aroan kokaturiko zenbait film grabatu da, besteak beste Rutger Hauer aktore holandarrak antzezturiko "Floris" izeneko komiki heroi baten abenturak.

Gaur egun Jauregia bizantinologiaren liburutegi eta ikasketa zentro bezala erabilia dago eta bisita gidatuak daude Jauregiko egoitza guztietan zehar.

Hernen herrian biztanle kopurua txikia den arren bi futbol talde eta tenis elkarte bat daude. Futbol taldeak UNI eta Hernani dira. Azken talde honen idazkariarekin kontaktuan jarri ondoren Hernen-era abiatu nintzen informazio gehiago jasotzeko asmoz. Luc Peters idazkariaren gain, hiru hilabetero Hernani futbol taldeak argitaratzen duen "De geel zwarte" aldizkariaren arduradun den Ivo de Wildt elkartu zitzaigun bisita hartan.

Hernen herri txikia izanik, Hernani futbol taldea ere ez da handia baina, hala eta guztiz ere, oso historia aberatseko taldea da. 1912. urteko maiatzaren 1ean sortu zen taldea R.K.S.V. Hernani izenarekin. R.K.S.V. hizki horiek taldearen sorreran bere jatorri erromatar katolikoa aipatzen zuten, gaur egun izena anekdota bat besterik ez delarik. Izenaren bigarren zatia buruz, Hernani izenaren zergatiari buruz alegia, ezer gutxi dakite bertako kide zaharrenek ere. Denen ustetan nolabait herriaren izenetik eratorria izango da baina ezer ziurrik ez daki inork. Tamalez, talde honen historian zehar dokumentu ugari galdu izan da, besteak beste 2. Guda Mundialaren hondamendia zela eta, izenaren jatorri zehatza inkognita bat bezala mantendu beharko delarik betirako.

Historian zehar hainbat eta hainbat talde eta jokalaritza aritu izan da Hernani futbol taldearen kolore hori-beltzak defendatuz. Garaipenak ere ugariak izan dira. Esate batetarako Hernaniko nagusien lehen taldea 97-98 denboraldian bere taldeko txapeldun izan da aurreko urtean bigarren izan zelarik. Talde hau KNVB edo Holandako futbol elkarteko 5. mailan ari da jokatzeko. Bere historia luzea dela eta, sari eta ohore guztiak jaso ditu Holandako zati honetako taldeetan zaharrentariko bat den honek. Diotenez herri



guztiak ospatu omen ditu taldearen garaipenak, urteurrenak, sariak, etab.

Emakumeek osaturiko futbol taldeak izan dira Hernani holandarraren historian.

Talde beteranoak ere aritzen

dira gaur egun futbolean eta lehiaketan gainera. Behin helduen taldeak uzteko garaia heldu eta futbola uzteko gogorik ez duenak futbolean aritzeko talderik aurkituko du, talde horietan 50 urte inguruko jendea ere aritzen omen delarik.

Talde amateurra izanik ere beren instalazioek inbidia sortuko lukete hemengo talde

batean baino gehiagotan. Elkarren ondoan kokaturik Schaarweide izeneko belardi oso eder batean bost bat futbol zelai dituzte eta neguan entrenatzeko beste bi zelai badauzkate. Gainera klubak badu halako kantina bat ere asteburuetan irekita egoten dena. Bolondresen bidez mantentzen da taldea funtzionamenduan: bolondresek garbitzen dituzte futbolarien jantziak, bolondresek zaindu futbol zelaiko belarra, bolondresek garbitu klubaren lokala, bolondresek eramaten dute taberna, etab.

Hernani talde holandarreko kideek ez zuten Gipuzkoan kokaturiko Hernani honi buruzko berririk eta oso berri kuriosotzat hartu zuten hura. Dagoeneko beren aldizkarian gure herriaren historiaren eta futbolaren zenbait



aipamen atera da. Pena hartu zuten hemengo txikiak Eindhoven hiri holandarreko txapelketan izan zirela jakin zutenean (eta garaile izan ziren gainera!), taldeko arduradunekin kontaktuan jartzeko aukera galdu zutela ikusten baitzuten. Aurrendenboraldietan diru piska bat elkartzuz gero autobusa hartu eta beste herrialde batzuetara joaten dira holandarrak bertako futbol taldeen aurka jokatzearren. Orain beste Hernani futbol talde bat Euskal Herrian badagoela dakitenez gero berehala pasatu zitzaien burutikan Zubipe aldera bisitatxo bat antolatu beharko zutela. Ia egia den eta datorren urtean Hernani vs. Hernani partiduren bat ikus dezakegun horren talde ezberdinen artean.

Azken urteotan hala ere urtetik urtera

nabaritu omen da jokalaria gutxiago zegoela jokatzeko moduan, taldea profesionala ez izatean lan arazoengatik edo adinagatik ere jende askok taldea utzi behar izan du eta. Gaur egun 160 bat kide ditu Hernani futbol taldeak, 4 futbol talde eta bi areto-futboleko taldetan banatuta. Horiek helduen taldeak dira. Hernen-eko hurrekin Hernani talde bat sortzea ezinezkoa gertatzen ari omen da azken urteetan oso gutxi direlako eta Hernen-eko beste futbol taldeko hurrekin batera osatu dituzte taldeak. Badirudi futbolak Hernen-en iraungo badu Hernani eta UNI taldeak elkartu egin beharko direla. Hori ez da Hernani taldeko beteranoen gustoko erabakia baina litekeena da beste erremediorikan ez izatea. Espero dezagun taldeak Hernani izena mantentzea behintzat lortuko duela.♦